



Busturiko
Udala



Akta

UDAL OSOKO BILKURA

SESION PLENARIA MUNICIPAL.

TOKIA / LUGAR: Udaletxea
EGUNA / FECHA: 2015/12/16
HASIERA / INICIO: 19:00
AMAIERA/FINAL: 19:30

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATEA/ALCALDE

Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)

Naiara Ruiz Badiola (EAJ-PNV)

M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz (EH BILDU)

Aritz Arregi Gurrutxaga (EH BILDU)

Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

Rodolfo Lartitegi Azpitarte (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL

Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ez Ohikoa / Extraordinaria

DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkatea Mahaiburua eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Udaleko Osoko Bilkura bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Saioan ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.

Alkate Jaunak aginduta hasiera eman zitzaion bilerari zinegotziei nahikoa denborarekin banaturiko gai-zerrendaren arabera, honako akordioetara iritsita:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.- Aurreko saioko akta.-

Osoko Bilkurak aho batez onartu zituen, 2015eko azaroaren 24ko akta.

1.º.- Acta de la sesión anterior.-

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, aprobó el acta de la sesión de 24 de noviembre de 2015.

2.- San Antonio barrendegia.-

Osoko Bilkurari honakoen berri eman zitzaion:

Lehena: Bizkaiko Foru Aldundiak hiru hilabeteko luzapena eskatu dio San Antonio barrendegia existitzen dela onartzen duen (eta Bizkaiko Foru Aldundiari berau ezabatzeko proposamena Batzar Nagusiei egiteko betebeharrak ezartzen dion) epaia eman duen Epaitegiari, epaia egikaritzeko. Luzapen-eskaera argudiatzeko, Aldundiak enpresa bat kontratatu duela dio, Eibex Asesores Consultores SL, barrendegiari buruzko ikerketa egin dezan, eta horretarako bi hilabete dituela aipaturiko enpresak; horren ondoren, entzueran eman behar diela udal kaltetuei eta, beraz, ezinezkoa dela epaia betetzea hiru hilabeteko epean.

Bigarrena: Horiek hala izanik, Iñaki Agirreazkuenaga Zigorraga udal honetako aholkulariak hitzarmen-proposamena idatzi du. Horretan, hainbat informazio eskatzeaz gain, foru-organismoari eskatzen zaio Eibex Asesores Consultores SL enpresaren kontratua bertan behera utzi dezan, eskatutako txosten guztiak barrendegia ezabatzeko espediente administratiboan baitaude dagoeneko; hala ez balitz, aurkaratze judiziala aurkeztuko litzateke, prestamengintzetarako zein zuzeneko esleipenerako.

Alkate jaunak esan zuenez, bere taldea hitzarmenaren funtsarekin bat etorrira ere, proposamenaren hainbat eduki Aldundiarentzat iraingarriak gerta zitezkeen, eta horregatik proposatu zuen gaia mahai gainean uztea eta handik astebetara aztertzea, modu leunago batez idatzi ahal izango balitz ere. Adierazi zuenez, Aldundiak errepresaliak har zitzakeela Udalaren aurka, azken horrek ia prebarkazioa leporatuko balio Aldundiari.

Zulueta jaunak adierazi zuen Foru Aldundiak argi eta garbi utzi duela Sukarrietari mesede egiteko bere asmoa, bigarren txosten bat eskatu eta hori berariaz hautatuta.

Lartitegi jaunak esan zuenez, berari abokatuaren proposamena baino, Aldundiak egindako proposamena iruditzen zitzaion gogorra, immoral eta lege kanpoko dela,

El Ayuntamiento Pleno fue informado de los siguientes hechos:

Primero: La Diputación Foral de Bizkaia ha solicitado al Juzgado encargado de la ejecución de la sentencia que reconoce la existencia del enclave de San Antonio (y obliga a la Diputación Foral de Bizkaia a efectuar a las Juntas Generales la propuesta para suprimirlo) una prórroga del plazo de tres meses para ejecutarla. La Diputación justifica su solicitud en que ha procedido a contratar a una empresa, Eibex Asesores Consultores, SL, para que haga un estudio sobre el enclave, para lo que dispone de dos meses, y que, posteriormente, debe dar audiencia de 30 días hábiles a los ayuntamientos afectados, por lo que le es imposible cumplir la sentencia en el plazo de tres meses.

Segundo: Ante estos hechos, el letrado asesor de este Ayuntamiento, Iñaki Agirreazkuenaga Zigorraga, ha redactado una propuesta de acuerdo. En ella, además de solicitar diversa información, se requiere al órgano foral que anule y revoque la contratación de la empresa Eibex Asesores Consultores SL, dado que todos los estudios que se le solicitan ya obran en el expediente administrativo de supresión del enclave, o, en caso contrario, se anuncia la impugnación judicial tanto de los actos preparatorios como de adjudicación directa.

Por parte del Sr. Alcalde se manifestó que su grupo, estando de acuerdo con el fondo del acuerdo, consideraba que parte del contenido de la propuesta contenía expresiones que podían ser ofensivas para la Diputación, por lo que proponía dejar sobre la mesa el asunto y estudiarlo dentro de una semana, para ver si se puede redactar de otra manera más suave. Manifestó que la Diputación podía tomar represalias contra el Ayuntamiento en el caso de que éste adoptase acuerdos en los que prácticamente se les acusa de prevaricar. El Sr. Zulueta manifestó que la Diputación Foral, con la decisión de encargar un segundo informe y hacerlo a dedo,



eta argitara ematea proposatu zuen (prentsa-agerraldiak, errepide-mozketak...). Halaber, Aldundiak errepresaliarik ezin duela hartu esan zuen, udaletako laguntza eta baliabide ekonomikoak ziurtatuta daudelako eta ez daudelako mendekuzko erabakien menpe.

Alkate jaunak erantzun zion Aldundiak udalarekiko elkarlanaren iturri itxi dezakeela egunerokoan; barrendegia garrantzitsua dela, baina badirela bestelako gai batzuk Aldundiaren esku daudenak; udalerrriaren interesaren defentsan tinko aritu behar dugula, baina formei eutsiz eta elegante jokatu.

Lartitegi jaunak esan zuen ez zuela uste horrek beste gai batzuetan eraginik izango zuenik (horietan ideologia politikoek eragina izan badute ere) eta, hala balitz, protesta egitea besterik ez dago.

Larrabaster andreak adierazi zuen bere taldea ados dagoela abokatuak proposatutako idatziarekin.

Idazkari jaunak gogoratu zuen abokatuak beti eman izan diola garrantzi handia udal erabakiak aho batez hartzeari.

Aklkate jaunak esan zuen bera oposizioan egongo balitz, seguruenik baiezkoa emango liokeela testuari.

Lartitegi jaunak esan zuen konfiantza osoa zuela abokatuarengan, oso pertsona jantzia eta gaitua dela uste duela eta espedienteak hasieratik ezagutzen duela baina, bestalde, gu ezin garela geratu gaizki hezi eta erasotzailatzat, benetan Aldundiaren biktimak baino ez garenean.

Alkate jaunak esan zuen elkarriketa pribatu batean ager daitezkeen hainbat kontu ezin direla islatu osoko bilkuraren dokumentu batean.

Ruiz andreak esan zuen zalantzazkoa zela gure abokatuak epaile aurrean frogatu ahal izatea Aldundiari egotzen zaizkionak.

Idazkari jaunak esan zuen Aldundiari galdetu baino ez zaiola egiten, eta ez dela ezer erasotzailerik esaten.

Zulueta jaunak adierazi zion irtenbide bakarra dela hedabideen aurrean agerraldia egitea.

Arregi jaunak nabarmendu zuen berari ez zitzaiola iruditzen hain gogorra proposamenaren edukia, eta aholkulariari galdetu behar zitzaiola ea funtsezkotzat jotzen duen eduki literal hori.

BITeko zinegotziek adierazi zuten, Aldundiari benetan min emango ziona izango litzatekeela gaia polemika bihurtzea, udal hitzarmenaren formaren gainetik.

Azkenik, Osoko Bilkurak gaia mahai gainean uztea erabaki zuen aho batez, eta handik astebetara beste osoko bat egitea, proposamena hasierako testuarekin edota beste forma batekin, baina funts berarekin, onartzen den ala ez erabakitzeko.

ya había puesto a las claras sus intenciones de favorecer a Sukarrieta.

El Sr. Lartitegi dijo que a él lo que le parecía duro no era el contenido de la propuesta del letrado sino lo que estaba haciendo la Diputación, que era inmoral e ilegal, proponiendo que se saque a la luz pública (ruedas de prensa, cortes de carretera, etc...). También dijo que Diputación no podía tomar represalias, ya que las ayudas y recursos económicos de los ayuntamientos están garantizados y no dependen de posibles decisiones vengativas.

El Sr. Alcalde le respondió que en el día a día la Diputación Foral puede cerrar el grifo de la colaboración con el ayuntamiento; que el enclave es importante, pero también hay otros temas que dependen de la Diputación; que debemos ser firmes en la defensa de los intereses del municipio, pero manteniendo las formas y siendo elegantes.

El Sr. Lartitegi dijo que no creía que repercutiese en otros temas (en los cuales sí han influido en legislaturas anteriores las ideologías políticas) y que, si es así, solo cabría protestar.

La Sra. Larrabaster manifestó que su grupo estaba de acuerdo con la redacción propuesta por el letrado.

El Sr. Secretario recordó que el letrado siempre había dado mucha importancia al hecho de que los acuerdos municipales sean adoptados por unanimidad.

El Sr. Alcalde afirmó que, si él estuviese en la oposición, seguramente también daría el visto bueno al texto.

El Sr. Lartitegi dijo que él tenía total confianza en el letrado al que considera muy competente y que conoce el expediente desde su inicio y que, por otro lado, nosotros no podemos pasar por maleducados y ofensivos, cuando en realidad lo que somos es víctimas de los abusos de la Diputación.

El Sr. Alcalde dijo que algunas cosas que se podían decir en una conversación privada no se podían reflejar en un acuerdo plenario.

La Sra. Ruiz dijo que era dudoso que nuestro letrado pudiese demostrar ante un juez las acusaciones que se realizan a la Diputación.

El Sr. Secretario dijo que el letrado ha comentado que lo único que se hace es preguntarle a la Diputación y que no se afirma nada ofensivo.

El Sr. Zulueta manifestó que la única solución es salir a los medios de comunicación.

El Sr. Arregi afirmó que a él no le parecía tan fuerte el contenido de la propuesta y que había que preguntar al asesor si considera esencial ese contenido literal.

Los concejales de BIT manifestaron que lo que realmente iba a doler a Diputación es que el asunto se convierta en polémico, no tanto la forma del acuerdo municipal.

Finalmente, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó dejar el asunto sobre la mesa, para celebrar un nuevo pleno dentro de una semana y analizar si se aprueba la propuesta con el texto inicial o se modifica su forma, que no el fondo.



Busturiko
Udala



Akta

Eta besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea/El Alcalde

Idazkaria/El Secretario,

Aitor Aretxaga Telletxea

Víctor-Martín Amparan Álvarez